

ELORRIO. Bost blues kontzertu eta jazz saio bi gertatu ditue; era berean, argazki erakusketea be antolatu dabe

Jazz eta blues doinuek girotuko dabe zemendia

Hilaren 23ra arte luzatuko dan Jazz eta Blues Jaialdia hasiko dabe, gaur

Aitziber Basauri

Gordon Smith & Simon *honeyboy* Hicklingek hasiko dau, gaur, Elorrion, XIII. Jazz eta Blues Jaialdia. Urteko kultur agendan leku finkoa lortu dau jaialdiak, eta zemendia bueltan doinu horreek izaten ditue nagusi Elorrion. Hilaren 23ra artean luzatuko da jazz eta blues jaialdia. Egun horreetarako, zazpi kontzertu gertatu ditue, igaz baino bat gehiago. Fernando Barcena bilbotarraren argazki erakusketea ikusteko aukerea be izango da. Horreek dira aurtongo barrikuntzak.

Arriolan, eta Parra eta Portalekua tabernetan eskainiko ditue saioak. Bost blues kontzertu izango dira eta jazz saio bi. «Desorekea egon leiteke, baina kontuan hartu behar da tabernekek gurago dabela bluesa jazz baino; beste giro bat sortzen da eta», esan dau Josi Bernasek, antolatzaile beharrean jardundakoak. Nazinoarteko musikariak izango dirala be nabarmendu dau berak. Erresuma Batua, Alemania, Frantzia, Galizia, eta Balearretako musikariak izango dira Elorrion. Baita Euskal Herriko Pablo Fernandez-Arrieta-ren jazz taldea eta Reverendo Parker blues taldea be.



ARRIOLA KULTUR ARETOA
G.Smith & Simon *honeyboy* Hicklingek hasiko dau jaialdia.

XIII. JAZZ ETA BLUES JAIALDIA

GAUR

22:00: Bluesa, Ateneoan. Gordon Smith & Simon *honeyboy* Hickling. (Erresuma Batua)

ZEMENDIAK 15, BARIKUA

23:00: Jazza, Ateneoan, Pablo Fernandez-Arrieta Quarteten eskutik.

ZEMENDIAK 16, ZAPATUA

23:00: Bluesa, Ateneoan. Victor Uris (Balearrak)

ZEMENDIAK 17, DOMEKEA

22:00: Coll vs Costa. Los Reyes del KO

taldeagaz bluesa, Portalekua aretoan. (Galizia)

ZEMENDIAK 21, EGUENA

22:00: Bluesa, Parra tabernan. Reverendo Parker.

ZEMENDIAK 22, BARIKUA

23:00: Untertonen eskutik, jazz, Ateneoan (Alemania)

ZEMENDIAK 23, ZAPATUA

23:00: Bluesa, Alain Giroux & Jean-Louis Mahjunen eskutik, Ateneoan. (Frantzia)

Barriketanek web orria egin dau, euskalgintzan egiten dan beharra batzeko

A.B.

Elorrioko Barriketan euskera taldeak www.barriketan.com orria jarri dau. Holan, euskalgintzaren inguruan beharrean diharduen taldeen ganeko informazioa eskaini gura izan dabe. Horixe esan dau Barriketaneko kide Ander Garizabalek.


Euskera Taldekoek esan dabenez, «momentuan informazioa eskaini gura dogu. Internetek hainbat aukera eskaintzen ditu, eta aukera guzti horreek be aztertu gura ditugu». Boletin edo hermerotekea, eta eritxiak jasoteko gunea sortzea aitatu dabe. «Era berean, Udaleko Euskara Kontseiluak ahozko artxiboa lantzen dihardu eta horren lagin bat be sartu leitekez, audio bidez. Baina, asmoak dira horreek, aztertzeko aukerak diran arren».

Barriketanekoen berbetan, «Elorrion, urteotan, euskerearen inguruan dinamika

inportantea sortu da. Barriketanek ez eze, Udaleko Euskera Kontseilua osatzen daben hainbat taldek be dihardue beharrean. Eta informazio euskarria aldatu gura izan dogu». «Kontsultarako tresnea da eta egitasmoen ganeko informazioa be topau leiteke». Sortutako azken barriak sartuko ditue orrian. «Euskarri lez papera erabilita oso gatz egiten jaku hori. Holan ezkutuan egiten dan behar guztia erakusteko aukerea be izango dogu».

Patxi Granadosek diseinatu dau aldika eguneratuko daben orria. «Irudi gorporetiboari eutsi deusagu; eta logotipo lez, begia aukeratu dogu, lotura lez eta sarean ibilteko erabiliko dana. Informazioa ahalik eta argien agertzea gura izan dogu, eta web orri arina izatea».

Web orri «edegia» izan daian gura dabe; eta herritarren ekarpenei zabalik egongo da.



AITZIBER BASAURI
Barriketan Euskera Taldeak landutako web orria gertu dago.

ABADIÑO. Guztira 2.404.048 euroko inbertsinoa egin beharko dabe; uste baino 540.910 euro gehiago

Matiena auzoan kultur etxea eregiteko egitasmoa gertu daukie Udal arduradunek

A.B.

Abadiñoko Udalak gertu dauka Matiena auzoan kultur etxea eregiteko egitasmoa. Horretarako 2.404.048 euroko inbertsinoa egin beharko dabe. Itxaroten ebena baino 540.910 euro gehiago. Egitasmoa aurrera eramateko aurrekontu aldarazpena egin beharko dabe. Udalak 1.863.137 euro inguru ditu gordeta kultur etxea eregiteko.

Laubideta auzoan altzau gura

dabe kultur etxe barria; zubi barriaren eta garai bateko Aceros Arrinda enpresearen arteko lurretan. Proiektuaren arabera, kultur etxeak sotoa, behe solairua eta lehenengo pisua izango dauz; eta solairuko 400 metro koadro. Sotoan 300 bat pertsonandako lekua daukan aretoa, kamerinoak eta biltegia egokituko dabez. Behe solairuan, tailerretarako gelak, batzar gelak eta harrerea. Irakurteko gelea —100 metro koadro dituen—

eta liburutegia, ikasteko gelak eta informatika gelea atonduko dabe lehenengo pisuan. Komunak be jarriko dabez. Kultur taldeen preminei erantzun gura deusie kultur etxeagaz, Jabier Uriarte alkateak esan dauenez. Beharrak 2003an hasiko dabez.

Batasuna «oso pozik» dago egitasmogaz. «Badira 16 urte horretan beharrean dihardogula, eta egitasmo horrek zerikusi gitxi dauka orain urte bi aurkeztutako aurreproiektuagaz. Gure ekarpenak kontuan hartu dabez eta pozik gagoz», esan dau Patxi Romanek. Matienako kultur etxeak Zelaietakoaren «osagarria» izan behar dauela uste dabe; «ez dau Zelaietakoa orde-

katu behar». Ganeratu dabe, aurretik planteatutakoa ez zala «funtzionala». Alkarteen preminei erantzungo deusela uste dabe, eta dagozan «hutsuneak» bete.

Batasunak 2002ko aurrekontuan onartu ziranetik, ez dau aldarazpenik onartu. «Orduan ez ebezan guk aurkeztutako enmendakinak eztabaidatzeko aukerarik be emon; eta aurrekontuei ezetza emon geuntsan». Baina, kultur etxerako aldarazpen proposamena aztertuko dabela esan dau Romanek. Gogoratu dau 2003ko kontuak lantzeko gertu dagozala. «Kultur etxerako behar dan dirua sartu leiteke».

AGENDEA

ERMUA

Zinekluba: *Iparra-Hegoa* zine zikloaren barruan Danis Tanovicen *En tierra de nadie* pelikulea eskainiko dabe gaur Ermua Zinemari. 22:15ean hasiko da emonaldia.

ELORRIO

Zinekluba: Antonio Chavarrias-ek zuzendutako *Volveras* filmea emongo dabe, Arriola Kultur Aretoan. emonaldia. 20:15ean hasiko dabe.

ABADIÑO

Film laburren zikloa: *Los amigos*, *Kaolaren Arima* eta *Jardines deshabitados* film laburrak emongo dabez, gaur, Kultur Etxean. Film laburren zikloaren barruan eskainiko dabe, 20:00etan.